



**2018KO ABENDUAREN 14KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko abenduaren hamalauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Bere ezin etorria adierazi du Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2018ko azaroaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 109 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (118.351,41 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 18-11-10 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko azaroaren 28tik aurrera, astean 2 ordu, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 18-11-11 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko abenduaren 14tik aurrera, astean 2 egun eta egunean 2 orduz, etxeko garbiketan eta antolaketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48 izango da.
- 18-11-12 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko abenduaren 4tik aurrera, astean 3 egun eta egunean 2 orduz, laguntza pertsonala eskaintzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**



- 18-01-015 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea eta alokairu gastuetarako hilean 175 € ematea, azaroa eta abenduan. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 18-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako 92,50 € ematea eta alokairu gastuetarako 250 € ematea, abenduan. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 18-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako 90,65 € ematea eta alokairu gastuetarako 245 € ematea, abenduan. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- Orobione jubilatatu eta pentsiodunen elkarteak.-

2018ko urtearako diru laguntzaren bigarren zatia ematea, ondorengo xehetasunaren arabera:

- Urteko ekintzen garapenerako 3.521,00 €
- Oinarrizko egituraren funtzionamendurako 1.250,00 €

- Gizarte entitateei diru laguntzak.-

Gizarte entitateei, 2018ko urteko honako diru laguntza hauek ematea:

Entitatea	Zenbatekoa
Odol emaileak	1.317,00 €
Gizakia helburu	1.100,00 €
Azki, emakumeen taldea	1.000,00 €

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza eta diru laguntza aurrerapen hauek ematea erabakitzen du:

- Jundajo txaranga.-

2018ko Gurutze auzoko festetan auzoa animatzen aritzeagatik 250 € diru laguntza ematea.

- Zawopi elkarteak.-

2018-2019 eguberrietan antolatuko dituzten ekintzetarako emango zaien diru laguntzaren aurrerapena gisa, 3.000 € ematea.

- Antsoategi elkarteak.-

2018-2019 eguberrietan antolatuko dituzten ekintzetarako emango zaien diru laguntzaren aurrerapena gisa, 3.000 € ematea.



V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek ematea erabakitzen du:

- Txindoki atletismo taldea.-

Jose txo Imazen oroimenezko XVIII. lasterketaren antolaketagatik 700 €ko diru laguntza ematea.

VI.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara eta hezkuntzako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek ematea erabakitzen du:

- San Benito Ikastola.-

San Benito Ikastolari jarduerak burutzeko diru laguntzaren bigarren zatia, 11.000 €, eta ikastetxeko mantentze gastuetarako diru laguntzaren bigarren zatia, 17.000 €, ordaintzea erabakitzen da.

VII.- GOIERRIKO HITZA ETA GOIERRI TELEBISTARI DIRU LAGUNTZAK.-

2018ko apirilaren 21ean egindako Tokiko Gobernu batzarraren bilkuran, Goierri Telebistari eta Goierriko Hitzari, bakoitzari, biztanleko 2 €ren pareko diru laguntza onartzea eta erdia ordaintzea erabaki zuen.

Orain diru laguntza horren bigarren zatia ordaintzea proposatzen da.

Hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari diru laguntzaren bigarren zatia onartzea erabakitzen du, bakoitzari 5.559,00 €.

VIII.- SAN INAZIO ATZEKALDEKO ETA ARESOKO BERRURBANIZAZIOAREN OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

VIII.I.- San Inazio atzealdeko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen bigarren obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA LAU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIRU EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (64.773,89 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Etxaide S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman dio obra egiaztagiri honi.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, onartzea erabakitzen du.

VIII.II.- Aresoko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztagiria egin dute.



Lehen obra egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (92.719,17 €), BEZ barne, da. Lan hauek Iparragire Eraikuntzak S.L. eta Transportes ORSA S.L.k osatutako Aldi Baterako Enpresen Batura ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman dio obra egiaztagiri honi.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, onartzea erabakitzen du.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

